



## REUNIDOS

Por una parte, Dña. ANA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ, Concejala Delegada del Departamento de Deporte, Salud Pública y Cooperación al desarrollo.

Y por otra, Dña. NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNIAIN ALZOLA, Presidenta de Euskal Fondoa – Asociación de Entidades Locales y Forales Vascas Cooperantes.

## EXPONEN

De conformidad con el protocolo general de actuación para la cooperación al desarrollo suscrito entre el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y Euskal Fondoa, suscrito con fecha 22 de julio de 2022, ambas partes acuerdan el siguiente Programa de Colaboración para el año 2025, aprobado por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento con fecha 5 de septiembre de 2025.

## CLÁUSULAS

### PRIMERA: PROYECTOS Y ACCIONES INCLUIDOS EN EL CONVENIO 2025

Las acciones constitutivas del Programa de Colaboración para 2025 son las siguientes:

PAÍS / ÁREA	PROYECTO
El Salvador y Costa Rica	3ª Edición programa interinstitucional cooperación agua y saneamiento Euskadi-CA. AKUAL (Fase 2 de 3)
El Salvador	Formación para la empleabilidad y el emprendedurismo de la juventud de Cuscatlán Norte (Fase 1 de 2)
Guatemala	Impulso de la equidad de género en 7 municipios de Alta Verapaz (Fase 1 de 3)
Guatemala	Mejoramiento del sistema de agua potable en el Barrio Vista Hermosa. Fray Bartolomé de Las Casas (Fase 1 de 2)
Educación para la ciudadanía global	Prácticas y trabajos fin de grado y fin de máster en cooperación al desarrollo de la UPV/EHU. Proyecto GAZTENPATIA. Curso 2025-2026



## SEGUNDA: APORTACIONES DE EUSKAL FONDOA

La aportación de EUSKAL FONDOA consistirá en:

- Gestión y seguimiento de los proyectos incluidos en el presente programa.
- Información sobre temas relacionados con el pueblo saharai por parte de la Unidad de Coordinación Sáhara.
- Información de programas y oportunidades de cooperación de instituciones internacionales, en especial en el marco de EuropeAid y de la red europea Plataforma.

## TERCERA: APORTACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ

1.- El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz destinará al presente Convenio una cantidad de DOSCIENTOS SIETE MIL EUROS (207.000,00 €) con cargo a la partida 2450.2391 482.07 "Convenio con Euskal Fondoa".

2.- Dicha aportación se destina a los siguientes conceptos:

Código	Proyecto	€
25-EF-01-SLV	3ª Edición programa interinstitucional cooperación agua y saneamiento Euskadi-CA. AKUAL (Fase 2 de 3)	50.000,00
25-EF-02-SLV	Formación para la empleabilidad y el emprendedurismo de la juventud de Cuscatlán Norte (Fase 1 de 2)	32.000,00
25-EF-03-GUA	Impulso de la equidad de género en 7 municipios de Alta Verapaz (Fase 1 de 3)	55.000,00
25-EF-04-GUA	Mejoramiento del sistema de agua potable en el Bº Vista Hermosa. Fray Bartolomé de Las Casas (Fase 1 de 2)	55.000,00
25-EF-05	Prácticas y trabajos fin de grado y fin de máster en cooperación al desarrollo de la UPV/EHU. Proyecto GAZTENPATIA. Curso 2025-2026	15.000,00
TOTAL		207.000,00

## B) OTRAS APORTACIONES

1.- El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz colaborará con EUSKAL FONDOA por medio de la asesoría y asistencia técnica de los servicios especializados de AMVISA en los dos proyectos de agua y saneamiento:

PROYECTO
3ª Ed. programa interinstitucional cooperación agua y saneamiento Euskadi-CA. AKUAL (Fase 2 de 3)
Mejoramiento del sistema de agua potable en el Bº Vista Hermosa. F. Bartolomé de Las Casas (Fase 1 de 2)



## CUARTA: PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES

El Presente Convenio de subvención nominativa se encuentra recogido en el vigente Plan Estratégico de Subvenciones (2025-2027), aprobado por la Junta de Gobierno Local el 17.01.2025.

Los objetivos que se pretenden conseguir a través del mismo son:

- Apoyo a la realización de proyectos de cooperación, anuales o plurianuales, a realizar en los países en desarrollo, correspondientes a diversos sectores.
- Apoyo a actividades de sensibilización y de educación relacionadas con la cooperación al desarrollo, con la realidad de los países en desarrollo y con los derechos humanos a nivel internacional dirigidas a diversos públicos.

## QUINTA: PLAZO DE EJECUCIÓN DE LAS ACCIONES DEL PROGRAMA DE COOPERACIÓN

Los plazos de ejecución de los proyectos subvencionados en el Programa 2025 son los siguientes:

PROYECTO	PLAZO DE EJECUCIÓN
3ª Edición programa interinstitucional cooperación agua y saneamiento Euskadi-CA. AKUAL (Fase 2 de 3)	01/09/2025 - 31/08/2026
Formación para la empleabilidad y el emprendedurismo de la juventud de Cuscatlán Norte (Fase 1 de 2)	15/07/2025 – 14/07/2026
Impulso de la equidad de género en 7 municipios de Alta Verapaz (Fase 1 de 3)	20/09/2025 – 19/09/2026
Mejoramiento del sistema de agua potable en el Bº Vista Hermosa. Fray Bartolomé de Las Casas (Fase 1 de 2)	01/11/2025 – 31/10/2026
Prácticas y trabajos fin de grado y fin de máster en cooperación al desarrollo de la UPV/EHU. Proyecto GAZTENPATIA. Curso 2025-2026	20/09/2025 – 19/09/2026

## SEXTA: RESPONSABILIDAD DE LAS ACCIONES

- 1.- EUSKAL FONDOA es el responsable de la gestión de los proyectos.
- 2.- El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz es el responsable de la realización de las actividades y de la asesoría que se pueda brindar por parte de su personal técnico a EUSKAL FONDOA.

## SÉPTIMA: ABONO DE LA SUBVENCIÓN

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz abonará a EUSKAL FONDOA la aportación correspondiente al Programa de cooperación 2025 como se indica a continuación:



Código	Proyecto	Desembolso
25-EF-01-SLV	3ª Edición programa interinstitucional cooperación agua y saneamiento Euskadi-CA. AKUAL (Fase 2 de 3)	100 % de forma inmediata
25-EF-02-SLV	Formación para la empleabilidad y el emprendedurismo de la juventud de Cuscatlán Norte (Fase 1 de 2)	100 % de forma inmediata
25-EF-03-GUA	Impulso de la equidad de género en 7 municipios de Alta Verapaz (Fase 1 de 3)	100 % de forma inmediata
25-EF-04-GUA	Mejoramiento del sistema de agua potable en el Bº Vista Hermosa. Fray Bartolomé de Las Casas (Fase 1 de 2)	100 % de forma inmediata
25-EF-05	Prácticas y trabajos fin de grado y fin de máster en cooperación al desarrollo de la UPV/EHU. Proyecto GAZTENPATIA. Curso 2025-2026	100 % de forma inmediata

### OCTAVA: SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN

- 1.- Euskal Fondoa realizará un seguimiento de terreno de los proyectos de cooperación subvencionados e informará al Servicio de Cooperación al Desarrollo de las visitas de seguimiento realizadas.
- 2.- Euskal Fondoa deberá presentar una ficha de avance de cada proyecto incluido en el presente programa antes del 31 de diciembre 2025 y un informe final en un plazo de tres meses a partir de la finalización del proyecto.
- 3.- El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz podrá realizar visitas de seguimiento a los proyectos y, en su caso, realizar o contratar evaluaciones externas de los mismos.
- 4.- Quedará constituida una Comisión de Seguimiento, a los efectos de controlar y evaluar la realización de las actividades del convenio. Dicha Comisión estará integrada por la persona técnica responsable del Servicio de Cooperación al Desarrollo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y el director de Euskal Fondoa.
- 5.- La Comisión de seguimiento se reunirá por lo menos en tres ocasiones:

Fechas	Objetivos de la reunión
Octubre 2025	<ul style="list-style-type: none"><li>- Comprobar las fechas de inicio, los plazos de ejecución y los avances de los proyectos del programa 2025.</li><li>- Comprobar las fechas de presentación de los informes de justificación de los proyectos de 2024.</li><li>- Valorar el desarrollo de los proyectos del Programa 2024.</li></ul>
Abril 2026	<ul style="list-style-type: none"><li>- Comprobar el cierre del programa 2024.</li></ul>



Septiembre 2026	- Valorar el desarrollo del Programa 2025 y comprobar las fechas de presentación de los informes pendientes.
-----------------	--

6.- La Comisión podrá proponer cuantas medidas considere oportunas para el buen desarrollo del programa y la mejora de su gestión.

### **NOVENA: JUSTIFICACIÓN DE LAS APORTACIONES RECIBIDAS**

1.- El marco de regulación para la justificación de las acciones realizadas en países en desarrollo es el Real Decreto 188/2025, de 11 de marzo, por el que se regulan las subvenciones y ayudas en el ámbito de la cooperación para el desarrollo sostenible y la solidaridad global, y específicamente en su Título II. Subvenciones y ayudas en régimen de concesión directa, Capítulo III Ejecución, justificación, seguimiento y control, reintegro y sanciones; junto con la vigente Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Vitoria Gasteiz.

2.- Para cada proyecto Euskal Fondoa presentará al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, y dentro de los tres meses siguientes a la finalización del mismo, la cuenta justificativa que presente al conjunto de entidades cofinanciadoras del mismo, especificando las aportaciones de cada uno de ellos. Los informes serán presentados siguiendo el modelo utilizado por Euskal Fondoa, que en todo caso deberá incluir:

- a) Una memoria de las actuaciones llevadas a cabo dentro del programa o actividad subvencionada.
- b) Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas que contendrá:
  - a. Una relación clasificada y numerada de los gastos realizados con cargo a la aportación al proyecto gestionada por Euskal Fondoa, con identificación del acreedor, importe, fecha de emisión y pago.
  - b. Justificantes de gasto y/o pago, que se presentarán por medio de facturas u otros documentos electrónicos. De no ser posible, las justificaciones se presentarán en papel o mediante copia escaneada, sin que sea necesario su estampillado, acompañada de una declaración responsable garantizando que la documentación es fiel al original.
  - c. Relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación de importe y procedencia.
  - d. Un balance de gastos e ingresos correspondientes a la ejecución del proyecto.
  - e. Una declaración de autenticidad de las facturas y demás documentación justificativa aportada.

### **DÉCIMA: CAMBIOS EN LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA**

1.- En caso de que Euskal Fondoa considere necesarias modificaciones sustanciales en el desarrollo de los proyectos, deberá solicitar la autorización expresa del Servicio de Cooperación al Desarrollo para llevar a cabo dichos cambios.

2.- Se entenderá como modificaciones sustanciales en los proyectos: cualquier modificación en la ubicación del proyecto, el cambio de socio local, el cambio en la población destinataria del proyecto, cambios a nivel de objetivos y resultados.

3.- En caso de que Euskal Fondoa considere necesaria una modificación de la distribución de la aportación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz entre los distintos proyectos que se incluyen en el convenio, deberá solicitar una autorización expresa al



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. La resolución de dicha solicitud le corresponderá a la Junta Local de Gobierno.

4.- En cualquier caso, las solicitudes deberán realizarse 45 días antes de que finalice el plazo de ejecución de los proyectos afectados y del convenio, tal y como establece el RD 188/2025.

### **UNDÉCIMA: CAUSAS DE RESOLUCIÓN**

Son causas de resolución para las partes firmantes del presente programa, el incumplimiento de las cláusulas contenidas en el mismo y cualesquiera otras que derivadas de su naturaleza, sean contempladas por éstas.

### **DECIMOSEGUNDA: REINTEGRO**

1.- Procederá el reintegro de las cantidades percibidas, previa tramitación del oportuno expediente, en los supuestos recogidos en el Título I del RD 188/2025 y en concreto:

- Si se hubiesen falseado los datos de la solicitud y/o de la documentación exigida.
- Si no se hubiese destinado la subvención a los fines y actividades para los que fue concedida.
- Si se hubieran incumplido las obligaciones establecidas en el presente convenio.
- En los demás supuestos establecidos en el artículo 20 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones, artículo 36 siguientes de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y artículo 91 y siguientes del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, y artículo 30 del Real Decreto 188/2025, de 11 de marzo, por el que se regulan las subvenciones y ayudas en el ámbito de la cooperación para el desarrollo sostenible y la solidaridad global.
- La entidad beneficiaria deberá proceder al reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.

2.- El Procedimiento de reintegro para la devolución de la subvención concedida, se ajustará a lo regulado en la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Ley General de Subvenciones y Reglamento.

### **DECIMOTERCERA: PUBLICIDAD Y DIFUSIÓN**

La difusión de estas actividades mediante folletos, carteles o cualquier otro soporte al que tenga acceso el público en general, se hará en ambas lenguas oficiales, tal y como se recoge en la Ordenanza Municipal de Subvenciones del 17 de junio de 2005 (BOTH de 13 de enero de 2006), siempre que la difusión se realice en la C.A.E. o en la Comunidad de Navarra.

### **DECIMOCUARTA: NATURALEZA E INTERPRETACIÓN**

1.- El presente convenio tiene naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el derecho administrativo.

1.- Las cuestiones litigiosas a que pueda dar lugar la interpretación, modificación, efectos o resolución del presente Convenio serán de conocimiento de la jurisdicción contencioso-administrativa.

2.- Será de aplicación en todo aquello que no hubiera sido contemplado en el presente programa, la Ordenanza municipal de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

de Vitoria-Gasteiz, así como la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento, aprobado por RD 887/2006, de 21 de julio, el Real Decreto 188/2025, de 11 de marzo, por el que se regulan las subvenciones y ayudas en el ámbito de la cooperación para el desarrollo sostenible y la solidaridad global así como demás normativa de pertinente aplicación, en especial los artículos 47 a 53 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.



## BILDURIK

Alde batetik, ANA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ andrea, Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkarria.

Eta bestetik, NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNIAIN ALZOLA andrea, Euskal Fondoak elkartearen lehendakaria.

## ADIERAZTEN DUTE

Gasteizko Udalak eta Euskal Fondoak 2022ko uztailaren 22an garapenerako lankidetzan aritzeko sinatutako jarduera-protokolo orokorrarekin bat etorriz, bi alderdiek lankidetzaprograma hau adostu dute 2025erako, Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko irailaren 5 onetsia.

## KLAUSULAK

### LEHENA: 2025EKO HITZARMENEAN JASOTAKO PROIEKTUAK ETA EKINTZAK

Honako ekintza hauek osatzen dute 2025erako lankidetzaprograma:

HERRIALDEA / ARLOA	PROIEKTUA
El Salvador eta Costa Rica	AKUAL Euskadi - Erdialdeko Amerika erakundearteko lankidetzaprograma: ura eta saneamendua, 3. edizioa (2. fasea 3tik).
El Salvador	Cuscatlán iparraldeko gazteen enplegarritasun eta ekintzailtzarako prestakuntza (1. fasea, 2tik)
Guatemala	Genero-ekitatea sustatzea Alta Verapazeko 7 udalerritan (1. fasea, 3tik)
Guatemala	Edateko uraren sistema hobetzea Vista Hermosa auzoan. Frai Bartolome de Las Casas (1. fasea, 2tik)
Herritartasun globalerako hezkuntza	EHUko Garapenean Laguntzeko Graduaren eta masterraren praktikak eta gradu eta master amaierako lanak. GAZTENPATIA proiektua. 2025-2026 ikasturtea



## BIGARRENA: EUSKAL FONDOAREN EKARPENAK

EUSKAL FONDOAREN ekarpena honako hau izango da:

- Programan sartutako proiektuen kudeaketa eta jarraipena.
- Saharako herriarekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa, Sahara Koordinazio Unitatearen eskutik.
- Nazioarteko erakundeen lankidetzaprogramei eta -aukeri buruzko informazioa, bereziki EuropeAid-en eta Plataforma sare europarraren esparruan.

## HIRUGARRENA: GASTEIZKO UDALAREN EKARPENAK

1.- Gasteizko Udalak BERREHUN ETA ZAZPI MILA EURO (207.000,00 €) bideratuko ditu hitzarmen honetara, "Hitzarmena Euskal Fondoarekin " 2450.2391 482.07 partidaren kontura.

2.- Ekarpena honako kontzeptu hauetara bideratuko da:

Kodea	Proiektua	€
25-EF-01-SLV	AKUAL Euskadi - Erdialdeko Amerika erakundearteko lankidetzaprograma: ura eta saneamendua, 3. edizioa (2. fasea 3tik).	50.000,00
25-EF-02-SLV	Cuscatlán iparraldeko gazteen enplegarritasun eta ekintzailtzarako prestakuntza (1. fasea, 2tik)	32.000,00
25-EF-03-GUA	Genero-ekitatea sustatzea Alta Verapazeko 7 udalerritan (1. fasea, 3tik)	55.000,00
25-EF-04-GUA	Edateko uraren sistema hobetzea Vista Hermosa auzoan. Frai Bartolome de Las Casas (1. fasea, 2tik)	55.000,00
25-EF-05	EHUko Garapenean Laguntzeko Graduaren eta masterraren praktikak eta gradu eta master amaierako lanak. GAZTENPATIA proiektua. 2025-2026 ikasturtea	15.000,00
GUZTIRA		207.000,00

## B) BESTE EKARPEN BATZUK

1.- Gasteizko Udala lankidetzan arituko da EUSKAL FONDOAREKIN, AMVISAREN zerbitzu espezializatuen aholkularitza eta laguntza teknikoa eskainiz uraren eta saneamenduaren alorreko bi proiektuetan:

PROIEKTUA
AKUAL Euskadi - Erdialdeko Amerika erakundearteko lankidetzaprograma: ura eta saneamendua, 3. edizioa (2. fasea 3tik).
Edateko uraren sistema hobetzea Vista Hermosa auzoan. F. Bartolome de Las Casas (1. fasea, 2tik)



## LAUGARRENA: DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

Dirulaguntza izendunaren hitzarmen hau indarrean dagoen 2025-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dago jasota, zeina 2025eko urtarrilaren 17an onetsi baitzuen Tokiko Gobernu Batzarrek.

Helburu hauek lortu nahi dira hitzarmenaren bidez:

- Garapen bidean dauden herrialdeetan hainbat sektoreri dagozkien urteko edo urte anitzeko lankidetzaproiektuak egiten laguntzea.
- Garapenerako lankidetzarekin, garapen-bidean dauden herrialdeen errealitatearekin eta nazioarteko giza eskubideekin zerikusia duten sentsibilizazio- eta hezkuntza-jarduerak bultzatzea, hainbat publikorentzat.

## BOSGARRENA: LANKIDETZA PROGRAMAKO EKINTZAK GAUZATZEKO EPEA

Honako hauek dira 2025eko programan diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko epeak:

PROIEKTUA	GAUZATZE EPEA
AKUAL Euskadi - Erdialdeko Amerika erakundearteko lankidetzaprograma: ura eta saneamendua, 3. edizioa (2. fasea 3tik).	2025/09/01 - 2026/08/31
Cuscatlán iparraldeko gazteen enplegarritasun eta ekintzailtzarako prestakuntza (1. fasea, 2tik)	2025/07/15 – 2026/07/14
Genero-ekitate sustatzea Alta Verapazeko 7 udalerritan (1. fasea, 3tik)	2025/09/20 – 2026/09/19
Edateko uraren sistema hobetzea Vista Hermosa auzoan. Frai Bartolome de Las Casas (1. fasea, 2tik)	2025/11/01 – 2026/10/31
EHUko Garapenean Laguntzeko Graduaren eta masterraren praktikak eta gradu eta master amaierako lanak. GAZTENPATIA proiektua. 2025-2026 ikasturtea	2025/09/20 – 2026/09/19

## SEIGARRENA: EKINTZEN ARDURADUNAK

- 1.- EUSKAL FONDOA proiektuak kudeatzeaz arduratuko da.
- 2.- Gasteizko Udala jarduerak gauzatzetik eta bere teknikariek EUSKAL FONDOARI ematen dioten aholkularitzaz arduratuko da.

## ZAZPIGARRENA: DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Gasteizko Udalak 2025eko lankidetzaprogramari dagokion ekarpena ordainduko dio EUSKAL FONDOARI, jarraian adierazten den moduan:



Kodea	Proiektua	Ordainketa
25-EF-01-SLV	AKUAL Euskadi - Erdialdeko Amerika erakundearteko lankidetzaprograma: ura eta saneamendua, 3. edizioa (2. fasea 3tik).	% 100, berehala
25-EF-02-SLV	Cuscatlán iparraldeko gazteen enplegarritasun eta ekintzailtzarako prestakuntza (1. fasea, 2tik)	% 100, berehala
25-EF-03-GUA	Genero-ekitatea sustatzea Alta Verapazeko 7 udalerritan (1. fasea, 3tik)	% 100, berehala
25-EF-04-GUA	Edateko uraren sistema hobetzea Vista Hermosa auzoan. Frai Bartolome de Las Casas (1. fasea, 2tik)	% 100, berehala
25-EF-05	EHUko Garapenean Laguntzeko Graduaren eta masterraren praktikak eta gradu eta master amaierako lanak. GAZTENPATIA proiektua. 2025-2026 ikasturtea	% 100, berehala

### ZORTZIGARRENA: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- 1.- Euskal Fondoak diruz lagundutako lankidetzaproiektuen jarraipena egingo du bertatik bertara, eta egindako jarraipen-bisiten berri emango dio Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuari.
- 2.- Euskal Fondoak programa honetan sartutako proiektu bakoitzaren aurrerapen-fitxa bat aurkeztu beharko du 2025eko abenduaren 31 baino lehen, baita azken txosten bat ere, proiektua amaitu eta hiru hilabeteko epean.
- 3.- Gasteizko Udalak proiektuen jarraipena egiteko bisitak egin ahalko ditu, eta, hala badagokio, proiektuen kanpo-ebaluazioak egin edo kontratatu.
- 4.- Jarraipen-batzorde bat eratuko da hitzarmenaren jarduerak nola gauzatzen diren kontrolatu eta ebaluatzeko. Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuko teknikari arduradunak eta Euskal Fondoko zuzendariak osatuko dute batzorde hori.
- 5.- Jarraipen-batzordea gutxienez hiru aldiz bilduko da:

Datak	Bileraren helburuak
2025eko urria	- 2025eko programako proiektuen hasiera-datak, gauzatze-epeak eta aurrerapenak egiaztatzea. - 2024ko proiektuak justifikatzeko txostenak aurkezteko datak egiaztatzea. - 2024 programako proiektuen garapena baloratzea.
2026ko apirila	- 2024ko programaren itxiera egiaztatzea.



2026ko iraila	- 2025eko programaren garapena baloratzea eta egiteke dauden txostenak aurkezteko datak egiaztatzea.
---------------	--

**6.-** Programa onik garatzeko eta haren kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak oro proposatu ahalko ditu.

### **BEDERATZIGARRENA: JASOTAKO LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA**

1.- Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko indarreko ordenantza orokorrak gain, garapen jasangarrirako lankidetzaren eta elkartasun globalaren esparruko dirulaguntza eta laguntzak arautzen dituen martxoaren 11ko 188/2025 Errege Dekretua da garapen-bidean dauden herrialdeetan egindako ekintzak justifikatzeko arau-markoa, eta, zehazki, II. tituluko (zuzeneko emakidaren araubideko dirulaguntza eta laguntzak), III. kapitulua (Betearazpena, justifikazioa, jarraipena eta kontrola, itzulketa eta zehapenak).

2.- Proiektu bakoitzerako, proiektua amaitu eta hiru hilabeteko epean, Euskal Fondoak Gasteizko Udalari aurkeztuko dio proiektua finantzatzen lagundu duten erakunde guztiei aurkeztu dien justifikazio-kontua, horietako bakoitzaren ekarpenak zehaztuta. Txostenak Euskal Fondoak erabilitako ereduaren arabera aurkeztuko dira, eta honako agiri hauek jaso beharko dituzte:

- a) Diruz lagundutako programa edo jardueraren baitan burututako ekintzen memoria.
- b) Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek jasotzen dituenak:
  - a. Euskal Fondoak kudeatutako proiektuari emandako ekarpenaren kargura egindako gastuen zerrenda sailkatua eta zenbakitua, hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa adierazita.
  - b. Gastu eta ordainketen egiaztagiria, fakturen edo beste dokumentu elektroniko batzuen bidez aurkeztuta. Hori ezinezkoa bada, egiaztagiria paperean edo kopia eskaneatuen bidez aurkeztuko dira, zigilatu beharrik gabe, eta, horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, dokumentazioa jatorrizkoarekiko fidela dela bermatzeko.
  - c. Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta.
  - d. Proiektua gauzatzeari dagozkion gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
- E.** Fakturen eta aurkeztutako gainerako egiaztagirien benetakotasun-adierazpena.

### **HAMARGARRENA: ALDAKETAK PROIEKTUA GAUZATZEAN**

1.- Euskal Fondoak uste badu proiektuen garapenean funtsezko aldaketak egin behar direla, Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren berariazko baimena eskatu beharko du aldaketa horiek egiteko.

2.- Honako hauek hartuko dira proiektuen funtsezko aldaketatzat: proiektuaren kokapenaren edozein aldaketa, bazkide lokalaren aldaketa, proiektuaren xede-populazioaren aldaketa, helburuen eta emaitzen aldaketa.

3.- Euskal Fondoak beharrezkotzat jotzen badu Gasteizko Udalaren ekarpenaren banaketa aldatzea hitzarmenean sartzen diren proiektuen artean, berariazko baimena eskatu beharko dio Gasteizko Udalari. Eskaera hori ebaztea Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.



4.- Nolanahi ere, eragindako proiektuak gauzatzeko epea eta hitzarmenaren indarraldia bukatu baino 45 egun aurretik egin beharko dira eskabideak, 188/2025 Errege Dekretuan ezarritakoaren ildotik.

### **HAMAIKAGARRENA: SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK**

Programa suntsiarazteko arrazoi izango da, izenpetzen dutenentzat, bertan ageri diren baldintzak nahiz haren izaerarekin lotuta indarrean dagoen legedian jasota dagoen beste edozein arau bete ez izana.

### **HAMABIGARRENA: ITZULKETA**

1.- 188/2025 Errege Dekretuaren I. tituluan jasotako kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako zenbatekoak, aldeztu aurretik dagokion dosierra izapidetuta. Zehazki, honako kasuetan:

- Eskabidean emandako datuak edo aurkeztutako agiriak faltsutu egin badituzte.
- Dirulaguntza zertarako eskatu zuten, hartarako erabili ez badute.
- Hitzarmen honetan jasotako betebeharrak bete ez badituzte.
- Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 20. artikuluan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. artikuluan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91. artikuluan eta hurrengoetan, eta Garapen jasangarrirako lankidetzaren eta elkartasun globalaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen martxoaren 11ko 188/2025 Errege Dekretuaren 30. artikuluan ezarritako gainerako kasuetan.
- Entitate onuradunak itzuli egin beharko du diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainerako soberakina.

2.- Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzan, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta horren araudian xedatutakora egokituko da dirulaguntza itzularazteko prozedura.

### **HAMAHIRUGARRENA: PUBLIZITATEA ETA ZABALKUNDEA**

Jarduerei zabalkundea emateko herritar guztiei zuzendutako liburuxka, kartel nahiz beste edozein euskarritan eginiko materialak oro bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, 2005eko ekainaren 17an onetsitako Dirulaguntzen Udal Ordenantzan adierazitakoari jarraituz (2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO), baldin eta zabalkundea EAEn edo Nafarroako erkidegoan egiten bada.

### **HAMALAGARRENA: IZAERA ETA INTERPRETAZIOA**

1.- Hitzarmen hau izaera administratibokoa da, eta administrazio-zuzenbidearen mende egongo da, interpretatzeari eta garatzeari dagokionez.

1.- Hitzarmen honen inguruko edozein kontu dela eta —interpretatzea, aldatzea, eraginak, suntsiaraztea— auzia sortuz gero, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoa izango da.

2.- Programa honetan aurreikusi gabekoetan, kontuan hartuko dira Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei eta Laguntzei buruzko Udal Ordenantza, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren erregelamendua —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsia—, Garapen jasangarrirako lankidetzaren eta elkartasun globalaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen martxoaren 11ko



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

188/2025 Errege Dekretua, eta aplikagarri diren gainerako araudietan xedatutakoa, bereziki Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulutik 53.era xedatutakoa.